

Hitza

Esanahia

<b>akitu</b>	nekatu
<b>alanbrea pasatu</b>	zorua garbitu
<b>aldaba</b>	atea jotzeko tresna metalikoa
<b>alondegi</b>	jangaiak salerosteko lokala
<b>anabasa</b>	nahastea
<b>antxirri</b>	oin bakarrean ibili saltoka (?)
<b>antxolan</b>	antxoak prestatzeko lana
<b>arre</b>	nabarra, grisa
<b>arru</b>	
<b>artega</b>	urduri, egonezinez
<b>aurren</b>	lehenbizikoa
<b>baldinbaitere</b>	baldinba, seguru ezetz
<b>barreiatu</b>	hedatu, zabaldu
<b>barrenik ez eduki</b>	adore falta izan
<b>bebarru</b>	ataria
<b>begirasun</b>	begikera
<b>begizkoa bota</b>	madarikatu bezala
<b>behatz</b>	(oinetako) atzamarra
<b>behazun</b>	gibealeko ixurkia
<b>behin honetara</b>	puntu horretara iritsi bagara...
<b>belaki</b>	esponja
<b>bera-bera egin</b>	erabat bigundu
<b>berakatz</b>	baratxuria
<b>beratu</b>	uretari jarri biguntzeko
<b>bere kasa</b>	berez, berak bakarrik

Hitza	Esanahia
<b>berniz</b>	oholari emateko isurkia
<b>betikara</b>	begi-kliska
<b>bilinbolaka</b>	itzulipurdika
<b>branka</b>	itsasontzien aurreko aldea
<b>burko</b>	almohada
<b>buruak erauzi</b>	alteratu, onetik ateratzen
<b>diosal</b>	agurra
<b>ebatzi</b>	erabakia hartu
<b>egoskor</b>	burugogorra
<b>egurrak eman</b>	egurra puztu, handitu
<b>ehun</b>	oihala
<b>eltzari</b>	eltzekaria, lekaria
<b>errekete</b>	Francoren soldadu faxistak
<b>erreskadan</b>	ilaran, errenkadan, lerroan
<b>errezel</b>	estalki, gortina
<b>esku-ahur</b>	eskuaren barruko aldea
<b>eskuila</b>	zurkazko garbitzeko tresna, <i>cep</i>
<b>espartin</b>	abarketa
<b>estreinako</b>	lehenengo aldia
<b>etzidamu</b>	biharko egunaren hurrengoa
<b>ezkata</b>	arrainen azaleko atala
<b>ezkila</b>	kanpaia
<b>fiuka</b>	txistuka (onomat.)
<b>gajo</b>	gizajoa, koitadua
<b>galgatze-hots</b>	balaztak sakatzean ateratako zarata

Hitza	Esanahia
<b>galtzarbe</b>	besapea
<b>garnata</b>	amuzkia, arrainetarako beita
<b>garondo</b>	buruaren atzealdea
<b>gila</b>	untzietako azpialdeko pieza
<b>harraska</b>	sukaldeko konketa, sukaltarria
<b>harrotu</b>	laztu, tentetu bezala
<b>hostopil</b>	hostorez eginiko opila
<b>hurrupa</b>	zurrutada, tragoa
<b>igurtzi</b>	indarrez eskua igaro azaletik
<b>ihar</b>	haragi gutxikoa, hezurtsua
<b>imintzio</b>	aierua, keinua
<b>inbutua egin</b>	onila, tutu forma eman
<b>iztupa</b>	lihozko hariz egindako mataza
<b>izu-laborri</b>	beldur ikaragarria
<b>jela-fabrika</b>	izotz-lantegia
<b>jenero</b>	salgaia
<b>josketan</b>	josteko lanean
<b>juanikote</b>	behatz lodiko hantura
<b>kanila</b>	txorrota
<b>kankailu</b>	handikotea, dorpe antzekoa
<b>karkailaka hasi</b>	barre-algaraka hasi
<b>karreto</b>	garraioan
<b>kataloxa</b>	urrunetik ikusteko tresna
<b>kateorratz</b>	lotzeko balio duen orratza
<b>katigatu</b>	trabatu

Hitza	Esanahia
<b>kikara</b>	katilutxo
<b>kilima</b>	kili-kilia
<b>kirioak dantzan jarri</b>	urduri jarri, bere onetik atera
<b>kirrinka</b>	soinu bizia ( <i>chirrio</i> )
<b>kizkur</b>	kiribildua
<b>koipea eman</b>	gauza politak esan limurtzeko
<b>kokoriko</b>	oinen gainean makurtuta
<b>kresal</b>	itsas aldeko usain berezia
<b>lainezatu</b>	haserretu, muturtu
<b>lakartu</b>	ahotsa marrantatu
<b>lantzean behin</b>	noizean behin
<b>lapak biltzera joan</b>	antzarak ferratzera bidali
<b>lardaskan ibili</b>	pikatzen, mokadutxoak jaten
<b>lauso</b>	difuminatua, nahasia
<b>lika-lika</b>	lingirdatsu, mukiz betea bezala
<b>lizunki</b>	modu likitsean, haragikoian
<b>loki</b>	belarrien aurreko aldea buruan
<b>lubaki</b>	trintxera
<b>mahuka</b>	arropetan besoa sartzeko tokia
<b>makulu</b>	herren edo zaurituen euskarria
<b>mandatuak egin</b>	errekadua, agindutakoa
<b>maripertxenta</b>	beti dotore doan neska
<b>maskuri</b>	puxika, txiz biltokia
<b>moila</b>	kaia
<b>motots</b>	ile-adatsa bilduta dagoenean

Hitza	Esanahia
<b>neska-lotsari</b>	emakumeen sexua
<b>oihartzun</b>	durundia
<b>orban</b>	zikin unea
<b>orezta</b>	peka
<b>ospelduta</b>	hotzaren hotzaz gorritua
<b>paneka</b>	arrain mota bat
<b>piko</b>	aldapatsua
<b>pipi</b>	sitsa, zerrena, <i>karkoma</i>
<b>pitzadura</b>	zirrikিতua, arraila
<b>punpaka</b>	saltoka, jauzika
<b>sama</b>	eztarria
<b>sano</b>	zeharo, guztiz
<b>sarri</b>	ugaria
<b>sekula santako</b>	betiko
<b>sesio</b>	eztabaida, liskarra
<b>seta</b>	burugogorkeria
<b>sorbatz</b>	aiztoen ahoa
<b>sorgortu</b>	sentimenak galarazi
<b>tarrat</b>	txaplatak jarri arropa urratuan
<b>tatarraz josi</b>	txaplata edo adabakiarekin (?)
<b>tiradera</b>	kaxoia
<b>tirain</b>	itsasoko uraren mugimendua
<b>tirri-tarra</b>	tirriki-tarraka, astiro, motel
<b>titare</b>	hatzetan jartzen den josteko tresna
<b>trabes</b>	zeharka

Hitza	Esanahia
<b>txatxu</b>	tentela, inuzentea
<b>txerren</b>	deabrua
<b>txilio</b>	oihu zorrotza
<b>txima</b>	ile xerloa
<b>txorrotxio</b>	txorien txioa, txirulirua
<b>ubera</b>	itsasontzien arrastoa, <i>estela</i>
<b>ukondo</b>	ukalondoa
<b>ur-handitu</b>	egurra uretan sartu puzteko
<b>xextra</b>	eztabaida, sesioa
<b>zangosagar</b>	zangoaren bikiak
<b>zarpail</b>	hondatua, zaharkitua
<b>zintzilikario</b>	eskegita jar daitekeen edozer
<b>zirri-zarra</b>	zorroztearen onomatopeia
<b>zirtolari-fama</b>	txisteak egiteko gaitasuna
<b>zokomiran</b>	kuxkuxean, ikusmiratzen
<b>zuzen antxean joan</b>	nahiko zuzen